



ELKARLANEAN

Berrikuntzarako laguntzak lankidetzan

 **Bizkaia**
foru aldundia
diputación foral

1_ZER LAGUNTZEN DA DIRUZ?

Diruz lagun daitezkeen proiektuak bi motakoak dira:

- I. **Enpresen** artean egiten den lankidetzaz-lana, helburuak hauek direnean:
 1. berrikuntza-proiektuak garatzea.
 2. potentzial berritzailea duten negozio-aukeren bideragarritasuna aztertzea.
- II. Berritzearen ondoreetarako enpresen arteko ekimen gehiago eta hobeak sortzeko «**Tarteko Organismoen**» arteko ekintza bateratuak.



2_ZEINTZUK DIRA ENPRESEK BETE BEHAR DITUZTEN BEHARKIZUNAK?

1. **Jarduera** nagusia Industriaren, Eraikuntzaren, Garraioaren, Turismoaren edo Handizkako Merkataritzaren sektorearen barrukoa izatea.
2. **Sozietatearen egoitza eta zerga-egoitza** Bizkaian edukitzea.
3. Gutxienez **ekoizteko zentro bat** Bizkaian edukitzea.
4. **5 eta 100 pertsona** arteko **plantilla** edukitzea.
5. Fakturazioan edo balantze orokorrean 20 milioi €-ak ez gainditzea.
6. Zergen eta Gizarte Segurantzaren arloko betebeharrak **egunean edukitzea** eta bereizkeriagatiko zehapenik ez edukitzea.

1 eta 5 beharkizunen artekoren bat betetzen ez bada diru-laguntza jaso ahal izango da proiektuaren aurrekontuak osoaren % 20 gainditzen ez duenean.



2_ ZEINTZUK DIRA TARTEKO ORGANISMOEK BETE BEHAR DITUZTEN BEHARKIZUNAK?

1. “Nortasun juridiko propioko irabazteko asmorik gabeko erakunde”, “Toki erakunde” edo “Toki erakunde baten menpeko merkataritzako sozietate” moduan eratuta egotea.
2. Bere helburu nagusien artean enpresen arteko lankidetzak sustatzea edukitzea.
3. Sozietatearen egoitza eta zerga-egoitza Bizkaian edukitzea (clusterren kasuan izan ezik; horien kasuan sozietate eta zerga egoitzak EAEn egon behar du).
4. Zergen eta Gizarte Segurantzaren arloko betebeharrak **egunean edukitzea** eta bereizkeriagatiko zehapenik ez edukitzea.



3_NOLA FUNTZIONATZEN DU?

- Partzuergoaren gastuan parte hartzerik handiena duen erakundeak BFArekiko solaskide moduan jardungo du laguntza eskatzeko, eta bera joko da proiektuaren aitzindaritzat.
- Alderdien arteko konpromisoa Lankidetza **Akordio** baten formalizatu behar da.
- Diruz lagun daitezke honako hauek: **barruko gastuak** (gehienez bi pertsonarenak erakunde bakoitzeko eta orduen muga bat ezarrita) eta zuzenean proiektuarekin lotuta dauden **kanpoko gastuak**.
- Aurrekontuan **kanpoko gastuak 15.000 €-koak edo altuagoak badira** derrigorrezkoa izango da gastu bererako hiru hornitzailearen eskaintzak aurkeztea. Diru-laguntza eskatzen denean bat behintzat aurkeztu beharko da.
- Gastuak **2018ko urtarrilaren 1etik 2020ko ekainaren 30ra arte** egin behar dira.



3_NOLA FUNTZIONATZEN DU?

- Proiektua amaitzen denean derrigorrez aurkeztu behar dira egin diren gastuak egiaztatzeko agiriak. Agiri horiek aurkezteko mugaeguna **2020ko irailaren 1a** da.
- Diruz lagun daitezkeen proiektu guztiak **irizpide jakin batzuen arabera baloratuko dira** eta aurrekontu osoa balorazio hori kontuan hartuta banatuko da, 35 puntutik aurrera, aurrekontua agortu arte.
- Enpresen arteko lankidetza proiektuen kasuan diru-laguntza % **40** edo % **60**koa izango da, balorazioaren arabera, eta laguntza gehienez 60.000 €-koa izango da.
- Tarteko organismoen arteko lankidetza proiektuen kasuan diru-laguntza % **60**koa izango da, balorazioaren arabera, eta laguntza gehienez 40.000 €-koa izango da.



4_NOLA EGIN ESKABIDEA?

- Eskabideak aurkezteko epea **2019ko martxoaren 1etik 15era** artekoa da.
- Eskabidea **aitzindaria** den erakundeak aurkeztuko du, **partzuergoaren izenean**.
- Era digitalean aurkeztuko da Bulego Birtualean.
- **Aitzindari moduan eskabide bakarra aurkeztu daiteke**, baina parte hartzaile moduan ez dago mugarik eta nahi diren eskabide guztiak aurkeztu daitezke.
- Eskabidean zehar erantsi behar den **dokumentazioa**:
 1. Proiektuaren **Memoria**, ereduaren araberakoa.
 2. Alderdien artean lankidetzan jarduteko **akordioa**.
 3. Eskuragarri den azken **RNTa** edo, pertsona langile autonomoak badira, azken kotizazioaren ordainketaren bankuko egiaztagiria bai eta kotizazio-oinarrien azken txostena ere.
 4. Erakunde guztien **minimis laguntzen erantzukizunpeko adierazpena**.
 5. Eta, horiek ez ezik, kasuaren arabera:
 - 15.000 €-ko edo hortik gorako gastuetarako eskaintza.
 - Hartzekodunaren fitxa kontu zenbakia eguneratu behar bada edo oraindik ere erregistratu gabe badago.
 - Ingurumeneko, berdintasuneko, euskararen sustapena edo enpresa erantzukizuneko ziurtagiriak edo planak.
 - Dagoeneko eskuragarri dauden fakturak eta egiaztagirikak.



GARRANTZITSUA

Informazio hau eta beste batzuk Elkarlanean Programaren DEKRETU ERREGULATZAILEAN eskuratu daitezke.

Informazio gehiago [web gunean](#).

Beste edozer argitzeko 94 406 8008 telefono zenbakira deitu daiteke, edo email honetara idatzi: berrikuntzazerbitzua@bizkaia.eus

